



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko uztailaren 23a

65. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik ba ote duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berariazko programarik ba ote duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, ur-amilen ubide bat eraikitzeke proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako zenbait produktu sustatzeko Estatu Batuetarako eginiko bidaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeke lanak hasteko onetsitako aurrekontuaren zati baten xedeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakiteko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zer asmo duen Viana (zeharbi-dea)-Aras 107. jarduera gauzatzeari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa Nafarroako Foru Komunitatean arautzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, ikastetxeetako liburutegiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko dituen saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Pablo Sarasate Erdi Mailako Kontserbatorioak irakasleak kontratatzeke zerrenda. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorian lan egiten duten irakasleen kontratuak hutsaltzeke prozesuak saiheste aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko noiz izango duen Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko klaustroak beharrezkoa den egonkortasuna, irakasleen plantillari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea. (19. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berriazko programarik ba ote duen jakiteko.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berriazko programarik ba ote duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berriazko programarik ba ote duen; jakiteko ba al dagoen inolako lankidetzarik Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Liburutegien Sarearen artean, bien artean Nafarroako ikasleengan irakurzaletasuna sustatze aldera; eta jakiteko Departamentuak zer ekintza zehatz garatzen dituen irakurzaletasuna sustatzeko. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Departamentuak baditu irakurzaletasuna sustatzeko berriazko programak, jarraian zehaztuko diren ekintzen zerrendan ageri denez.

Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Liburutegien Sarearen arteko lankidetzari dagokionez, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen 19. eta 20. artikuluetan honela definitzen dira eskola liburutegiak: "Eskola liburutegiak oinarrizko baliabi-

de-zentroak dira, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza eta curriculum proiektuetan erabat txertatuak, eta informazio zerbitzu aktiboa ere badira, betekizun funtsezkoa duena ikasleen ikasketekin, irakaskuntza lanekin eta ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunearekin loturik."

"Liburutegi publikoek laguntza emanen diete eskola liburutegiei liburutegien arteko maileguaren bitartez. Halaber, aholkularitza teknikoa, erabiltzaileentzako prestakuntza, eta elkarren arteko programetan parte hartzeko aukera ere emanen diete."

Harreman horiek hitzarmen bidez ezarriko dira eta erregelamenduz garatuko dira. Zentzu horretan, dagoeneko egon da lehen harreman bat.

Joan den otsailaren 21ean bildu ziren Hezkuntza Departamentuan dagoen Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko zuzendaria eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko Liburutegi Zerbitzuko zuzendaria, harreman horiek ezartzeko lehen kontaktu gisa.

Datu horiek guztiak eta sinaturiko hitzarmen hori kontuan hartu gabe, lankidetzarako bide ezberdinak daude eskola liburutegien eta liburutegi publikoen artean, hala nola liburutegien arteko mailegua, eskolek liburutegi publikoetara bisitaldiak egitea eta abar.

Irakurzaletasuna sustatzeko ekintza zehatzak:

**1. Liburuaren eguna: apirilaren 23an**

Irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina antolatzeko eta ospakizunaren afixa eta orrialde markagailua argitaratzea.

Ospakizun horren kariatara, Liburutegi Sarearen asmoa da "Cuentos de risa con Luisa y Marisa" (Barre egiteko ipuinak, Luisa eta Marisarekin) ikuskizunaren hainbat emanaldi antolatzea, ondo-

ko liburutegietan: Altsasu, Lizarra, Lodosa, Zangoza, Tafalla Tuter eta Zizur.

Halaber, "Gus Marionetas" konpainiaren eskutik ere beste emanaldi batzuk izanen ditugu, hala nola "Liburuzaina estu eta larri", euskaraz, eta ondoko liburutegietan egingen da: Bera, Leitza, Baztan eta Atarrabia.

## 2. Udako liburutegia (maiatza/iraila)

Irakurzaletasuna igerilekuetan sustatzeko kanpaina: eskaintza berezia egingen da aldizkariekin, egunkariekin eta denbora pasarako liburuekin, ipuin-kontalariekin, lehiaketekin eta abar.

Ekintza horretarako afixa eta orrialde markagailua argitaratuko dira.

## 3. Liburutegiaren eguna: urriaren 24an

Egun hori ospatzeko ikuskizunak egingen dira AA deituriko liburutegietan (eskualdekoak edo biztanleriaren dentsitate handia duten hirietakoak):

Altsasu, Barañain, Burlata, Lizarra, Iruña-Txantrea, Iruña-Etxabakoitz, Iruña-Iturrama, Iruña-Mendillorri, Iruña-Milagrosa, Iruña-Sanduzelai, Iruña-San Pedro, Iruña-Yamaguchi, Zangoza, Tafalla, Tuter eta Zizur Nagusia.

## 4. Kulturarako foroa (udazkenean)

Olinpiaden gainean egindako proposamen berrien aurkezpena, aurretik egin diren kanpainen formatu berean.

Sarearen 12 liburutegiri zuzendutako jarduera, B eta C deiturikoei (3000 biztanle baino gutxiagoko herrialdeak eta udal ekimenez sortutako beste batzuk): Beriain, Faltzes, Funes, Fustiñana, Martzilla, Milagro, Villafranca, Arroniz, Cadreita, Larraga, Mañeru, Urdiain.

## 5. "Cuentos de las cuatro esquinas del mundo" (azaroaren lehen hamabostaldian)

Munduko ipuinen zikloa egingen da lau liburutegi publikotan: Azkoien, Noain, Murchante eta Cortes.

Afixa eta orrialde markagailua argitaratzea.

## 6. Irakurketa klubak

Urteko lehen seihilekoan 15 liburu-sorta eskuratuko dira.

Liburutegien Sareak 25 irakurketa klub inguru ditu, aldizka elkartzen direnak, ondoko liburutegi publiko haueetan: Ablitas, Altsasu, Andosilla, Añorbe, Artika, Barañain, Buñuel, Burlata, Lizarra, Mendabia, Iruña-Civacán, Iruña-San Pedro, Iruña-

Yamaguchi, Gares, Ribaforada, Tafalla, Tuter, Viana, Atarrabia, Zizur Nagusia eta kanpoko zenbait erakundetan; esaterako, Iruñeko kartzelan.

Saretik, prestakuntzarako jardunaldi bat jarriko da abian, irakurketa klub bat sortu nahi duten liburutegietako langileei zuzendua, haien liburutegietan irakurzaletasuna sustatzeko jarduera gisa.

Gainera, aurreikusita dago finkatuta dauden irakurketa klub koordinatzaileen jardunaldi edo topaketa bat egitea, haien artean esperientziak truka ditzaten, eta publiko orokorarentzat zabalik izanen den eztabaida bat ere egingen da, literatura-aren arloko pertsonaia ospetsu eta nabarmen baten eskutik.

## 7. Irakurzaletasuna sustatzeko materialak

- Liburutegi publikoen aldizkari berriemailea (seihilekoan behin). Atal ezberdinak izanen ditu: Sareari buruzko informazio orokorra; liburutegiei buruzko berriak; gomendioak; gehien irakurritako liburuak; irakurketa klubak eta beste zenbait.

- Gida bat argitaratuko da, Sarean dauden liburutegi publikoen katalogoarekin.

- Gida bat argitaratuko da, Iruñeko liburutegien katalogoarekin.

- Liburutegien informazio liburuxkak eguneratuko dira.

- Txartel/inprimaki bat argitaratuko da, erabiltzaileek bertan jaso dezaten zer iritzi duten irakurritako liburuei buruz.

- 2008an urtemuga duten irakurgaien gida: Olinpiadak, Simone de Beauvoir, Oteiza eta Sarasate.

- 2009ko orrialde-markagailu egutegiduna.

## 8. Webgune berria sortzeko proiektua.

Kultura Ministerioak "Generador de Sedes Web de las Bibliotecas Públicas" izeneko tresna sortu du. 14 liburutegiri dago zuzendua, eta prestakuntza ikastaro bat dauka liburutegiko zerbitzuak Interneten sartu eta, modu horretan, liburutegiko edukiak eta zerbitzuak kudeatu ahal izateko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berri-azko programarik ba ote duen jakiteko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak irakurzaletasuna sustatzeko berriazko programarik ba ote duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroan irakurzaletasuna sustatzeko dagoen programa eta bere materialak erreferentzia dira gainerako autonomia erkidegoentzat.

Nafarroako eskola liburutegien egoerari buruzko lehen azterlan diagnostikoa egin zenetik, 1997-1998 ikasturtean, Hezkuntza Departamentuak irakurzaletasuna sustatu du jarduera-ildo ezberdinen bidez; horietariko batzuk ikastetxeetan finkatu ziren, eta zerbitzu ezberdinek hartu zuten parte.

Hezkuntza Departamentuak, irakurzaletasunak zeharkako gaitasun gisa curriculumeko alor guztietan duen garrantziaz ohartuta, bi ebazpen onetsi zituen 2002. urtean. Helburua zen ulermenezko irakurketa sustatzea, hala Lehen Hezkuntzan (uztailaren 15eko 583/2002 Ebazpena), nola Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (ekainaren 27ko 527/2002 Ebazpena). Hartutako neurriak eraginkorrak eta egokiak izan dira; izan ere beste autonomia erkidego batzuk pixkanaka ezarri joan dira neurri horiek, ondoko hauekin gertatzen den moduan:

– Curriculumean dauden alor guztien programazioek –bi etapetan– beren helburuen, edukien eta irizpideen artean sartzan dute ulermenezko irakurketa eta alor ezberdinetako hiztegia lantzea, modu integratuan.

– Zikloko koordinatzaileak eta departamentu-buruak arduratzen dira zaintzeaz ikasturte guztietan lantzen dela alor ezberdinetako testuen ulermena eta horiei dagokien hiztegi berezia.

– Lehen Hezkuntzako ordutegian, ikastetxe publikoetan, ezarrita dago asteen behin saio bat

eskainiko zaiola irakurketari, eta irakasleei laguntzen zaie jarduera hori egiteko.

– Hezkuntza Departamentua arduratzen da bi etapetako irakasleentzako prestakuntza zehatza antolatzeaz eta jardunbide egokiak zabaltzeaz –horien artean ulermenezko irakurketa–, eta horretarako material didaktikoak argitaratzen ditu.

Pedagogia Berrikuntzarako Zerbitzuak (gaur egun Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzua deritzo) oinarritzko 10 printzipio ezarri zituen, horietan oinarri zedin Nafarroan ulermenezko irakurketa sustatzeko plana eta gerora egiten zen lana:

1. Irakurzaletasuna sustatzea da haurren eta nerabeen heziketan ardura dugun guztion zereginna, eta gizarte osoaren konpromisoa eskatzen du: familia, irakasleak, liburutegi publikoa, hezkuntza administrazioak, erakunde politikoak, eta abar.

2. Hezkuntza Departamentuarentzat irakurketa da curriculumaren alor guztientzako zeharkako materialik gorena, eta funtsezko tresna da materia guztiak ikasteko.

3. Eskolak, erakunde den aldetik, bere gain hartu behar ditu irakurtzen dutena ez ulertzeagatik irakurtzea atsegin ez duten neska-mutil horiek, horrek adierazten baitu neska-mutil horiek ez dituztela irakurtzeko gaitasuna garatzeko beharrezkoak diren buru-mekanismoak.

4. Zeregin hori ez dagokio soilik hizkuntzaren alorrari; beharrezkoa da curriculumaren alor guztietako irakasleen lankidetzan.

5. Ikasleek alor guztietako dibulgaziozko materialak irakurtzeko aukera izan behar dute, ikasgelan, irakastorduetan, banaka edo taldeka, isilpean nahiz ozenki.

6. Ulermenezko irakurketarako zioak. Irakurri, zertarako?

Irakurri ikasteko

Irakurri komunikatzeko, ahoz nahiz idatziz

Irakurri emozioak sentitzeko

Irakurri izaera kritikoa izateko

7. Irakurketak hertsiki lotuta egon behar du idazmenarekin eta ahozko adierazpenarekin, beraz elkarrekin landu beharreko gaitasunak dira.

8. Irakurzaletasuna sustatzeko jolasek irakurketarekiko nolabaiteko zaletasun afektiboa eta intelektuala garatzen dute, baina, zoritxarrez, ez dituzte irakurleak sortzen.

9. Familia da, eskolarekin batera, hauraren eta nerabearen heziketari eusten dion beste zutabe nagusia. Gurasoek ere errefortzu gisa jardun beharko lukete, irakasleen laguntzarekin.

10. Eskola liburutegia funtsezko tresna da irakurketa planak arrakasta izan dezan. Ikastetxeko irakasleek ongi antolatu eta dinamizatu behar dute.

Oinarrizko printzipio horietatik abiatuta, Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuak ondoko ekintza hauek eraman ditu aurrera:

### 1. Argitalpenak

Irakasleei laguntzeko materialak argitaratzen jarraitu da, eta sail berriak gehitu zaizkio “Blitz, liburutegiko sagua” bildumari, irakasleei laguntze aldera ulermenezko irakurketa, idazmena eta ahozkotasuna alor guztietatik lantzen:

#### Sail horia

1. Ulermenezko irakurketa eskolako curriculumean

2. AMADO MOYA, Jesús, El lenguaje científico y la lectura comprensiva en el área de ciencias

3. SANZ MORENO, Ángel, La lectura comprensiva y los libros de texto en la ESO

4. MORENO BAYONA, Víctor, Leer para comprender

5. SANZ MORENO, Ángel, Cómo diseñar actividades de comprensión lectora. 3º ciclo de Primaria y 1º ciclo de la ESO

6. Nola prestatu ulermenezko irakurketa plana DBHko institutu batean

7. IRAIZOZ, Natividad, GÓNZALES, Fermín, El mapa conceptual: un instrumento apropiado para comprender textos expositivos

8. MORENO BAYONA, Víctor, A la lectura por la voz, el sentimiento y la creatividad

9. IZA DORRONSORO, Luis, El plan de lectura en los centros de educación infantil y primaria

10. Bigarren hezkuntzako eskola liburutegientzako funts bibliografikoaren eredu

#### Sail gorria:

1. JIMENO, Pedro, La enseñanza de la expresión escrita en todas las áreas

### Sail laranja:

1. MARTÍNEZ MONGAY, Ana, Cómo preparar una exposición oral en todas las áreas de secundaria

### 2. Kanpainak

Materialak prestatu dira irakasleen artean irakurketari buruzko oinarrizko ideiak zabaltzeko: egutegiak (2002. urtean: El profesorado comprometido con la lectura...; 2003an: Leer para...); orrialde markagailuak Blitz sailen berri emateko eta abar.

“La familia lectora” izeneko zazpi kanpaina argitaratu dira, hala gaztelaniaz nola euskaraz, familiei irakurketaren alorrean laguntzeko eta, beren seme-alaben tutoreen bidez, irakurketa, idazmena eta liburuak protagonista dituzten zenbait estrategia eta jarduera proposatzeko. Hauexek dira kanpaina horiek:

- Con la lectura ganamos altura
- De la mano
- Con alta voz
- Sácale punta
- Con la lectura ganamos altura 2
- Fondo de estantería
- Para recordar

### 3. Sariak

Sarien bi deialdi daude:

Irakurzaletasuna sustatzeko sariak, zeinen helburua baita eskola liburutegiak dinamizatzeko eta berritzeko esperientzia interesgarrienak hautatzea, saritzea eta hedatzea. Urtero bi proiektu saritzen dira (lehen eta bigarren sariak) bi kategoriatan:

– Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia

– Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Berrikuntza sariak, zeintzuk saritzen baitute, besteak beste, irakasleek hizkuntza-gaitasunak hobetzeko egindako lana. Kasuren batean ikastetxeko irakurketa Plana saritu da (Cadreitako ikastetxe publikoko irakaslegoa kasu).

### 4. Hezkuntza ministerioarekin sinaturiko lankidetzak hitzarmenak

Hezkuntza Departamentuak lankidetzak aktiboa izan du Hezkuntza Ministerioak irakurzaletasuna sustatzeko egin dituen kanpainak hedatzeko, hala nola “Viaje por el mundo de los libros”, Lehen Hez-

kuntzako 3. eta 4. mailarako, eta "Pasaporte de Lectura," etapa bereko 5. eta 6. mailerako," 2002 eta 2005 urteen artean.

2005-2006 ikasturtean, laguntza eman zitzaion Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola liburutegiak hobetzeko zuzkidura ekonomikoari, eta 2006-2007 ikasturtean, lankidetz hitzarmena sinatu zen Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola liburutegiak hobetzeko. Horretarako, Hezkuntza Departamentuak 480.012,12 euroko inbertsioa egin zuen.

Kalitatea eta Genero berdintasunaren Zerbitzuak, bere aldetik, irakasleak prestatzeko sailetik, bi zerbitzu mota eskaintzen dizkie irakasleei eta ikastetxeei:

1. Irakurzaletasuna sustatzea helburu duten jardueren eskaintza zabala, jolaserako nahiz ulermenerako direnak, eta modalitate guztietan: online ikastaroak (teknologia berriak irakurzaletasunari aplikatuta, teknologia berriak idazteko zaletasunari aplikatuta, prentsa hezkuntzarako baliabide gisa), mintegiak (irakurle kluba, irakurketa eta idazmena nola landu, ahozko hizkera...), ikastaroak (irakurketa plana, ulermenezko irakurketa, narrazio kluba, txiki-txikitatik komunikatzen ikastea...), moduluak (testu mota ezberdinak idazteko proposamena, irakurketaren ulermena lantzeko estrategiak...), informazio saioak (kamishibai), jardunaldiak (Nafarroako eskola liburutegiak).

2. Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) liburutegietan, eskuragarri dituzte mota guztietako baliabideak irakurketa lantzeko curriculumaren alor guztietatik. Fikziozko irakurketa sustatzeko,

ikastetxeei uzten zaizkie "maleta eta motxila ibiltariak" deiturikoak, gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko literatura biltzen dutenak.

Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzutik eguneratzen ari dira eskola liburutegi askoren instalazioak eta altzariak, irakurketarako eta ikerkuntzarako gune gisa egokitzeko.

Garrantzia berekoa da Ikuskapen Zerbitzuak egiten duen lana irakurketari eta Nafarroako ikasleei dagokionez. Egin diren ebaluazioetan lortu diren datuen aurkezpenari esker, funtsezkoa den informazioa dugu: ikasleek ulermenezko irakurketarekiko dituzten indarguneak eta ahulguneak ezaugaritzen ditugu. Datu horiek oinarritzkoak dira hobekuntza planak eta Hezkuntza Departamentuak hartu beharreko neurriak orientatzeko.

Azkenik, adierazi behar da harreman interesgarria dagoela Kultura Departamentuko liburutegi publikoen sarearekin. Funtsean, harreman hori gauzatzen da bi departamentuek ekoizten dutenari buruz trukutzen duten informazioan. Azken urteotan, beste jarduera batzuk ere batera egin dituzte: sareko liburuzainek irakasleak prestatzen dituzte fikziozko literaturan egunera daitezen; ikastetxeak eta ikasleak dira liburutegi publikoen jarduera batzuen protagonistak; topaguneak ere badira, esaterako 2007ko urrian egin zen liburutegien jardunaldia, eta zalantzarik gabe, ikastetxeak dira neurri handi batean liburutegi sarearen zerbitzuen erabiltzaileak.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas  
López de Goicoechea

## **Galdera, ur-amilen ubide bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du ur-amilen ubide bat eraikitzeko proiektuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du ur-amilen ubide bat eraikitzeari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Maiorga Ramírez Erro jaunak zenbait galdera egin ditu Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak –gaur egun Nafarroako Kirol Institutua– Esan ur-amilen ubidea eraikitzeko proiektuan izan duen finantzaketari buruz. Hona erantzuna:

Lehenik eta behin, adierazi behar da Nafarroako Kirol Institutua ez dela galderan aipatzen den proiektuaren sustatzailea, ezta horren aurreproiektuarena ere –hala jakinarazi zitzaion Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari, 2006ko irailaren 21ean egin zuen galderari emandako erantzunean–; baina, proiektu horren sustatzaileek eskatuta, Institutuak proiektuaren finantzaketan parte hartu zuen, eta horrek 11.900 euroko kostua izan zuen.

Hori horrela delarik, departamentu honek ezin du proiektuaren egungo egoerari buruzko informazioirik eman; informazio hori, ematekotan, proiektua sustatu duten udalen partzuergoak eman beharko du. Bere kideen artean daude Zangoza, Xabier eta Esako Udalak eta, Aragoiko Sos del Rey Católicoko Udala.

Horri lotuta, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak ez daki zein den proiektuaren zenbatekoa, ezta zein diren entitate sustatzaileak proiektua finantzatzeko aurreikusi dituen baldintzak ere.

Azkenik, departamentu honek adierazi behar du Esan ur-amilen ubidea sustatzeko udalen partzuergoak, aurreproiektua eman zenetik, ez duela bilera gehiagorik izan Nafarroako Kirol Institutuarekin, ezta eskatu ere; hortaz, ez da ezagutzen zein diren proiektua egiteko dauden aurreikuspenak.

Nafarroako Kirol Institutuak parte hartu du udalen partzuergoak eskatu dituen bileretan, horien buru izanik garai hartan Zangozako Udaleko alkattea zen Lorenzo jauna, eta departamentuari informazioa igortzen zitzaion partzuergoak hala Nafarroako Foru Komunitateko erakundeekin nola administrazio ezberdinen mende daude erakundeekin (Sustapen Ministerioa, Kirolen Kontseilu Nagusia, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa) izandako bilerei buruz; izan ere, proiektua egin ahal izateko, ahalik eta erakunde gehienek inplikatu beharko lukete.

Iruñean, 2008ko martxoaren 4an.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Nafarroako zenbait produktu sustatzeko Estatu Batuetarako eginitiko bidaiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako zenbait produktu sustatzeko Estatu Batuetarako eginitiko bidaiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren ordezkari batek Estatu Batuetara egin duen bidaiari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuaren ordezkari itzulia, Nafarroako Gobernuko lehendakaria buru zuela, ondokoek osatu zuten: Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak, Lehendakariaren Komunikazio aholkulariak, Komunikazio zuzendari nagusiak, Enpresa zuzendari nagusiak eta lehendakariaren bizkartzain batek.

2. Helburua, orokorki, ondokoa zen: Nafarroaren irudia, ardoa eta jakiak Estatu Batuetan sustatzea. Horretarako, ezagutzera eman zen Foru Komunitatean ditugun nekazaritzako eta mahastizaintza eta ardogintzako produktuen aberastasuna eta kalitatea.

Bidaiaren gastuak ezagutuko dira bere antolatzaileek bidaiari dagokion balantzea egiten dutenean. Aurten ere, merkataritza-misio horren laugarren edizioa ospatzen den honetan, bidaiaren antolatzaileak Merkataritza Ganbera eta Sodena izan dira berriro.

Edonola ere, eta hasierako balorazio gisa, Nafarroako Gobernuak adierazi du arrakastatsua izan dela Estatu Batuetan egin den Nafarroaren Astea, pertsona ugari hurbildu zirelako antolatu ziren ekitaldietara eta, merkataritza-misio horretan parte hartu zuten sukaldariak, ardogileak eta enpresariak pozik gelditu direlako.

Era berean, Estatu Batuetan antolatutako Nafarroaren Asteari esker, ireki edo sendotu egin dira lotura pertsonal eta komertzialak New Yorkeko eta Miami erakundeekin, enprekin eta entitateekin –bi eremu horiek oso estrategikoak dira Iparramerikako merkatuan–.

Halaber, bidaiak aukera eman zuen Estatu Batuetan ezagutzera emateko energia berriztagarriek Nafarroan duten garapen-maila handia; horretarako, hitzaldi bana egin ziren Miamin eta New Yorken, eta interes handia piztu zuten.

Bidaia horren lehen ondorioetako bat izan da Miami Merkataritza Ganberak –Estatu Batuetako garrantzitsuenen artean laugarrena– Nafarroara bidaia egiten duela iragarri izana. Horrek aukera emanen du bi eskualdeen artean lankidetzarako bide berriak ezartzeko, eta baliteke hori lankidetzaren hitzarmen batean gauzatzea. New Yorkeko Ganbera Hispanoamerikarrak ere Nafarroa bisitatzeko interesa azaldu du.

3. Estatu Batuetan antolatu den Nafarroaren Astea orain arte egin den laugarrena izan da. 2008ko otsailaren 4tik 7ra egin zen, eta bertan parte hartu zuten Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektoreko hogeit hamar enpresek.

Nafarroako Gobernuaren ordezkari itzulia egindako jardueraren nagusiak ondoko hauek izan ziren:

Miamin egindako egonaldian, ordezkari itzulia instituzionala bildu zen Miami-Dade konderriko lehendakari Carlos Álvarezekin. Konderri horretan sartzen dira Floridako 35 hiri, eta bi milioi eta erdi hiritar inguru ditu.

Nafarroaren ordezkari itzulia lan bilera bat izan zuen Coral Gables-eko Merkataritza Ganberako buruekin.

Bilera tekniko bat egin zen “Florida Power & Light” konpainia elektrikoko arduradunekin; konpainia horrek urtero 16.000 milioi dolar fakturatzen ditu eta, gainera, telekomunikazioen zerbitzua ematen die lau milioi etxe eta enpresari.

Hitzaldi bana eman ziren Miami-Dadeko Unibertsitatean eta New Yorkeko Columbia Universityn, Nafarroak energia berriztagarrien alorrean nazioartean duen erreferentzia-mailari buruz.

Iruñeko alkate Yolanda Barcinak eta Ernest Hemingway-ren lanean aditua den Allen Joseph



hispanistak hitzaldia eman zuten idazleak Nafarroarekin izandako harremanari buruz. Ekitaldiari amaiera emateko, Miguel Sanz lehendakariak “Hemingway fell in love with this country” erakusketa inauguratu zuen, Miami-Dadeko unibertsitatean.

Otsailaren 1etik, ostirala, 10era bitartean, igandea, Miami hamar jatetxek eta New Yorkeko beste hamalauk parte hartu zuten Nafarroaren Aste Gastronomikoan. Aste horretan zehar jatetxe horietan eskaini ziren Nafarroako produktuekin egindako platerak eta gure lurraldeko ardoak, eta espezializatutako hogeitalau dendak eta supermerkatuk beren bezeroentzako dastaketak antolatu zituzten Nafarroako produktuekin eta ardoekin.

Bai Miamin bai New Yorken, Nafarroako hogeiren enpresen arduradunek parte hartu zuten nekazaritzako elikagaien sektoreko profesionalentzat egin ziren erakustaldietan, “Grove Isle” eta “W Union Square” hoteletan antolatu zirenak.

Bi hotel horietan bertan, mintegi bana eskaini zituen Ana Lagunak. Mintegi horien koordinatzailea “Society of Wine Educators” elkartearen lehendakari ohi Robin Kelley izan zen, eta zuzenduta zeuden bereziki hogeita hamar bat “sommelierri” eta bi hirietako kritikari gastronomikoei. Bestalde, nekazaritzako elikagaien sektoreko eta horien banaketa sektoreko berrehun profesional bildu ziren Nafarroako produktuen eta ardoen arteko uztartzea dastatzeko antolatu ziren bi afarrietan.

Promoziorako ekitaldi horietan guztietan zerbitzatu ziren pintxoak eta platerak “Don Pablo” jate txeko taldeak prestatu zituen, eta bertako chef Teresa Gilek Nafarroako sukaldaritzari buruzko klaseak eman zituen Miami “Jonson & Wales University-n” eta New Yorkeko “International Culinary Center-ean”.

Hauexek izan ziren Estatu Batuetako Nafarroaren IV. Astearen parte hartu zuten hogeiren upelategiak eta nekazaritzako elikagaien firmak: Bodegas

1877, Bodegas Ada, Bodegas Alconde, Bodegas Alzania, Bodegas Artajona, Bodegas Campos de Enanzo, Bodegas Chivite, Bodegas Inurrieta, Bodegas Marco Real, Bodegas Marqués de Montecierzo, Bodegas Ochoa, Bodegas Ondarre, Bodegas Orvalaiz, Bodegas Otazu, Bodegas Pagos de Araiz, Castillo de Monjardín, Tandem, Licores Baines, Conservas Gutarra eta Hacienda Queiles.

Bestalde, ondokoak izan ziren Nafarroaren Aste gastronomikoan Miamin parte hartu zuten hogeitalau jatetxeak: Azul, Baleen, Cacao, Diego, Dolores Lolita, Escopazzo, Francesco, La Dorada, Las tapas de Rosa eta Rincón Español. New Yorken, berriz: Alcalá, Boquería, Casa Mono, E.U, Lilly’s, Madison Lounge, Olives, Pamplona, Pintxos, Sala, Solera, Suba, Tía Pol eta Toledo.

Era berean, ondokoak dira Miamin parte hartu zuten denda espezializatuak eta supermerkatuak: Brisas de España (bi denda), Copas y Tapas, Delicias de España, Happy Wine, La Bodeguita Española, Las Tapas de Rosa, Rincón Español, Sabor de España, Sevilla Café, Paco’s Bocatería, Xixon. New Yorken hauexek parte hartu zuten: America’s Wine Shop, Astor Wines, Best Cellars, Cabrini Wines, Chelsea Wine Vault, Garnet Wines, K&D Wines, PJ Wines, Sea Grape Wines, Sherry-Lehmann, Smith & Vine eta 67 Wine.

4. Aurreko edizioetan gertatu den moduan, Nafarroa New Yorken sustatzeko ekimenak ez dira ordaindu Nafarroako aurrekontu orokorren kargura.

Nafarroako Gobernuaren ordezkariak instituzionalak merkataritza-misio horretan izandako gastuak garraioari eta ostatuari dagozkionak dira. Ordezkaritzak izandako gastua 28.500 eurokoa izan da.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko lanak hasteko onetsitako aurrekontuaren zati baten xedeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Musikaren Hiria eraikitzeko lanak hasteko onetsitako aurrekontuaren zati baten xedeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

“Musika kontserbatorioa” izeneko kontusailaren aurrekontuari bi doikuntza egin zitzaizkion:

1.300.000 eurokoa bata, 2007ko abuztuaren 24an, eta 275.621,53 eurokoa bestea, 2007ko azaroaren 28an. Zenbateko horiek sartu ziren “Eraikin berriak egitea eta egokitze lanak” izeneko 410001-41120-6020-325100 kontusailean.

Kontusail horri egotzi zitzaizkion Zizurko Catalina de Foix ikastetxeko lanak, Ave M<sup>a</sup>-Patxi Larrainzar ikastetxea handitzeko lanak, Mendillorriko BHIko obrak, Iruñeko Arte eta Lanbideen Eskolako estalkia konpontzea, eta Foru Komunitateko BHI ezberdinetan egindako lan txikiak.

Kontserbatorioaren kontusailari egindako doikuntzari esker, osatu egin zen eraikin berriak eta egokitzapen lanak egiteko kontusaila.

Iruñean, 2008ko otsailaren 29an

Obra eta Mantenimendu Zerbitziburua: Irache Fernández Arellano

## **Galdera, jakiteko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zer asmo duen Viana (zeharbidea)-Aras 107. jarduera gauzatzeari dagokionez.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du jakiteko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zer asmo duen Viana (zeharbidea)-Aras 107. jarduera gauzatzeari dagokionez.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendarian

jasota dagoen Viana (Saihesbidea)-Aras 107. jarduketari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren asmoa da 2008. urtean zehar 2009-2016 urteetarako Nafarroako errepideei buruzko III. plan zuzendaria prestatzea eta izapidetzea. Horretarako, espedientea hasi du obren proiektua egiteko laguntza teknikoa kontratatzeke, eta aurreikusita dago eskaintzak 2008ko apirilaren 4an ematea.

Viana (Saihesbidea)-Aras errepidea hobetzeko jarduketa Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendarian aurreikusita dagoen jarduketa da, hain zuzen, errepide hori berritu eta hobetzeko, baina oraindik ez da egin. Asmoa da jarduketa hori 2009-2016 urteetarako Nafarroako errepideei buruzko III. plan zuzendarian sartzeta eta lehenestea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, haur hezkuntzako lehen zikloa Nafarroako Foru Komunitatean arautzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du haur hezkuntzako lehen zikloa Nafarroako Foru Komunitatean arautzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Parlamentariak egindako galdera zehatzi erantzun baino lehen, beharrezkoa da hausnartzea zer dela-eta ez zuen onartu Nafarroako Gobernuak –2007ko urriaren 15eko Gobernuaren erabakiaren bidez– Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 28/2007 Foru Dekretuari buruz egindako errekerimendua.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak bere 15.4 artikuluan ezartzen du haur hezkuntzako lehen zikloa eskaini ahal izanen dela ziklo osoa edo zikloaren zati bat ematen duten ikastetxeetan, eta ziklo horren urte oso bat gutxienez eskaintzen duten ikastetxeek beren heziketa proiektuan jaso beharko dutela 14. artikuluen 2. idatz-zatian adierazitako proposamen pedagogikoa, eta langile kualifikatuak izan beharko dituztela, 92. artikuluan jasotako baldintzei jarraikiz.

Ikusita zein diren martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuaren 13. artikuluan jasotzen diren baldintzak, "Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak dira 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzat hezkuntzako zerbitzu erregular bat ematen dute-

nak, hau da, zerbitzu jarraitu eta sistematikoa, foru dekretu honetan ezarritako baldintza eta betebeharrei jarraikiz," oinarritzko araudia betetzeko, lehenik eta behin beharrezkoa izanen litzateke uler- tzea zerbitzu erregular baten aurrean egonen garela baldin eta betetzen bada zikloaren urte oso bat gutxienez ematearen baldintza.

Premisa hori ezarrita, zehaztu behar da, a sensu contrario, zein den foru dekretuaren 13.2 artikuluen xedea; artikuluen horrek bere aplikazio esparrutik kanpo uzten ditu zentro jakin batzuk: "0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzat diren eta foru dekretu honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen ez dituzten aisia, arreta edo zaintzako zerbitzu edo establezimenduak". Artikulu horren xedea da foru dekretuaren aplikazio esparrutik kanpo uztea haur hezkuntzako ikastetxeak ez diren zentroak, Hezkuntzari buruzko legearen 15.4 eta 92.1 artikuluetan ezarritako oinarritzko arauari jarraikiz.

Horren ondorioz, interpretatu behar da foru dekretuaren 13. artikuluen kanpo uzten ez dituen ikastetxe guztiek bete beharko dituztela Hezkuntzaren Lege Organikoak haur hezkuntzako ikastetxeentzat ezartzen dituen bi baldintza horiek, alegia, proposamen pedagogikoa bat eta langile kualifikatuak izatea. Kanpoan geratuko diren ikastetxeak dira aipaturiko ziklo horren urte oso bat gutxienez ematen ez duten horiek.

Hori horrela, Hezkuntzari buruzko legea kontuan hartuta, foru dekretuak soilik aurreikusten eta arautzen duena da 0tik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako ikastetxeen sarea; horren ondorioz, hezkuntza izaera duenez, ziklo hori lehen aipaturiko erregularitasunez eskaintzen duten ikastetxe guztientzat derrigorrezkoa izanen da langile kualifikatuak izatea, eta beren hezkuntza proiektuan

sartzea izaera hori jasoko duen proposamen pedagogiko bat, oinarrizko araudiari jarraikiz.

Horregatik guztiagatik, eta parlamentariak egingdako galderei dagokienez, ondokoa adieraz deza-kegu:

1. Hezkuntzaren Lege Organikoaren 15.4 artikuluan hitzez hitz aipatzen dira: "Ziklo horren urte oso bat gutxienez eskaintzen duten ikastetxeak"

Horrela, Nafarroako Gobernuak 2007ko urriaren 15ean hartutako erabakian jasotzen da kanpoan geratuko direla, 28/2007 Foru Dekretuaren 13. artikulua aplikatuz, soilik ziklo horren gutxienez urte oso bat ematen ez duten ikastetxeak.

Aipaturiko 28/2007 Foru Dekretu horren 15.1 artikulua ondokoa ezartzen du: "Ikasturteak 11 hilabete izanen ditu gehienez"

Apirilaren 25eko 407/2007 Ebazpenak, haur hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxeek izanen duten eskola egutegia eta ordutegia egiteko arauak onesten dituenak, 28/2007 Foru Dekretuak 2007/2008 ikasturterako ezartzen duena garatuz, ondokoa xedatzen du: ikasturtea irailaren 1ean hasi eta uztailaren 31n amaituko da, eta ikastetxea 215 egunez irekiko da; horietatik hiru egun plangintza lana egiteko izanen dira eta gainerako 212 egunak haurrak zaintzeko izanen dira. Ikastetxe pribatuei dagokienez, ezartzen da ikasturtea gutxienez hamar hilabetekoa izanen dela eta hamaikakoa gehienez, eta ikastetxea haurrentzako irekita izanen dela gutxienez 172 egunez eta gehienez 213 egunez.

2. Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe publiko bat sortzeko beharrezkoa da 28/2007 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzea, eta izapideak egitea Foru Dekretu horren 22. artikuluan arabera.

Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatu batek baimena lor dezan, beharrezkoa da 28/2007 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzea, eta izapideak egitea Foru Dekretu horren 25., 26., 27. eta 28. artikuluen arabera.

Halaber, kontuan izan behar da lehen eta bigarren xedapen gehigarriek hiru urteko epea ezartzen dutela Foru Dekretuaren baldintzetara egokitzeko, irakaskuntzak ezartzen direnetik hasita.

3. 28/2007 Foru Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, Hezkuntza Departamentuan dagoen Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari dagokio haur hezkuntzako lehen zikloan hezkuntza arloko ikuskapena egitea.

Hezkuntza Ikuskatzaitzaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duen 365/1999 Foru Dekretuak ezartzen du ikuskatzaile guztiek ikuskatzaitza orokor bat egin beharko dutela, haren esparrua bakoitzari esleituriko ikastetxeek eta hezkuntza sistemako etapek osatuko dutelarik, eta horrek ahalbidetzen die garatzea ikastetxeen kontrolaren, ikuskapenaren, ebaluazioaren eta aholkularitzaren alorretan esleitzen zaizkien eginkizunak.

Gainera, eta ikuskapen teknikorako urteko jarduketarako plan orokorra betez (287/2007 Ebazpena, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana), aurreikusten da tresna egokia izanen dela prestakuntza instituzionaleko plan bat egitea, ezagutza garatu ahal izateko hala eskatzen duten planaren alorretan.

4. Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe publiko nahiz pribatu bat sortzeko edo Hezkuntza Departamentuaren baimena lortzeko, beharrezkoa da ikastetxe horrek 28/2007 Foru Dekretuan eta Hezkuntzari buruzko legean ageri diren baldintzak eta betekizunak betetzea. Ikastetxe batek eskaintzen duen zerbitzua urte bete bat baino gutxiago bada, ikastetxe horrek ez ditu betetzen 28/2007 Foru Dekretuak eta Hezkuntzari buruzko legeak agintzen dituzten baldintzak haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe gisa baimentzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## Galdera, ikastetxeetako liburutegiei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du ikastetxeetako liburutegiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 22ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

1998-1999 ikasturtetik, Hezkuntza Departamentuak zenbait ekintza eraman ditu aurrera eskola liburutegiei dagokienez.

Lehen neurriak hauexek izan ziren:

- azterlan diagnostiko bat egin zen eskola liburutegien egoera zein zen ezagutzeko, eta horren emaitzak oinarritzat hartu ziren ondoren eginen ziren jarduerak prestatzeko.

- ikastetxe guztientzako komuna izanen zen eskola liburutegiaren eredia onartzea eta hedatzea, nazioarteko erakundeen argibideei jarraituz –esaterako UNESCOrenak–, eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearekin bat –erreforma hori oinarritzen da curriculumaren alor guztien ikaskuntza aktiboan, eta ezinezkoa da hori aurrera eramatea baliabide bakarra erabiliz (testu-liburua, apunteak edo eskola magistrala)–.

- liburutegiaren erabilerari buruzko proiektua aurkeztu zuten ikastetxeentzat deialdi bat egin zen, liburutegian erabiltzeko ekipamendu informatikoa eskainiz. Halaber, hautatutako ikastetxeek prestakuntza jaso zuten eta ABIES liburutegiak kudeatzeko programa ere bai.

Hurrengo ikasturteetatik egundaino, Hezkuntza Departamentuko Eskola Liburutegien programak zenbait ekintza eraman ditu aurrera, ikastetxeei eta irakasleei zuzenduak, eta liburutegian aritzeko:

- materialak prestatzea eta banatzea liburutegia, bere guneak eta apalak seinaleztatuz, gaztelaniaz, euskaraz eta ele bitan.

- posterrak prestatzea eta banatzea, sailkapen hamartar unibertsalarekin –Nafarroako eskola

liburutegiak antolatzen onartu den sistema–, gaztelaniaz, euskaraz eta ele bitan.

- “Blitz, liburutegiko sagua” saila argitaratzea, aholkuak emateko liburutegiko lanaren alderdi teknikoari buruz (sail urdina), liburutegiaren dinamizazioari buruz (sail berdea), eta ulermenezko irakurketaren tratamendua (sail horia), idazmena (sail gorria) eta ahozko adierazpena (sail laranja) lantzeko, bai gaztelaniaz bai euskaraz. Orain arte 22 izenburu argitaratu dira.

- Nafarroako eskola liburutegien webgune berria egitea, eta bertan daude irakasleen eskura material eta informazio guztiak

(<http://www.pnte.cfn Navarra.es/bibliotecasescolares>)

- eskola liburutegiak kudeatzeko programa informatikoaren azken bertsioa banatzea, ABIES, Hezkuntza Ministerioarekin elkarlanean. 300 lizentzia baino gehiago banatu dira (ikastetxeen kopurua gainditu da).

- lehen hezkuntzako ikastetxeentzat prestatutako irakurzaletasuna sustatzeko kanpainen banaketa, “Viaje por el mundo de los libros” eta “Pasaporte de lectura”; Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin elkarlanean egin ziren, 2002-2003, 2003-2004 eta 2004-2005 ikasturteetan.

- “La familia lectora” izeneko kanpaina banatzea, beren seme-alabak haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan eskolatuak dituzten familiei zuzenduak, gaztelaniaz eta euskaraz, irakurketa eta idazmena lantzeko laguntza eta jarduerekin.

- modalitate guztietako prestatzekuntza jardueren deialdia (on-line, jardunaldiak, presentziako ikastaroak, mintegiak eta abar)

- kable-sarea ematea liburutegi nagusian internetatik izateko, TRENZA proiektuaren bidez. Horrela, bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoen %100 interneteko konexioa izanen dute eta haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikastetxeen %65 baino gehiagok.

- altzariak eguneratzea eta hobetzea; horretarako departamentuak aurrekontuko lerro bat dauka.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko dituen saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Pablo Sarasate Erdi Mailako Kontserbatorioak irakasleak kontratatzeke zerrenda bera izatea.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko dituen saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Pablo Sarasate Erdi Mailako Kontserbatorioak irakasleak kontratatzeke zerrenda bera izatea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer neurri hartuko dituen Hezkuntza Departamentuak saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Pablo Sarasate Erdi Mailako Kontserbatorioak irakasleak kontratatzeke zerrenda bera edukitzea. Hona erantzuna: (PES-74)

Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an emandako 156/2005 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan arituko diren izangaien zerrendak kudeatzeko arauak.

Foru Agindu horren seigarren arauaren 5. idatz-zatian aipatzen dira musika ikasketak emateko zerrenda berariazkoak: "Hezkuntza Departamentuak ezagutza probak gairatzeko beharra ezarri ahal izanen du, eskolak emateko Musikako Goi Mailan eta berariaz Musikako Erdi Mailakoak diren espezialitateetan."

Arau hori betetzeko, izangaiak onartzeko eta berriro antolatzeko deialdiak onesten dituen abenduaren 27ko 2655/2006 Ebazpenak, Hezkuntza

Departamentuan dagoen Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, bere seigarren oinarriaren arautu zituen izangaiak Musikako Erdi Mailan eta Goi Mailan onartzeko oinarriak.

Aipaturiko deialdiarekin bat, bi zerrenda mota daude Musikako Goi Mailan:

1 Musikako erdi mailaren eta goi mailaren artean korrelazio bat dagoenez, erdi mailako zerrenda korrelatiboetan dauden izangaiak, betiere goi mailarako gaitzeko eskaria egin badute, eta deialdian ezarritako titulazioak badituzte. Hori da I. eranskinean adierazitako espezialitateen kasua.

2. Goi mailako gainerako zerrendak, erdi mailako zerrendekin zerikusirik ez dutenak, ez dagoelako horien artean korrelaziorik. Zerrenda horietan daude bertan sartzeko eskaria egin duten izangaiak, betiere deialdian ezarritako titulazioak badituzte, eta onartuak izan ahal izateko proba gairatzen badute. II. eranskinean jaso dira Musikako Goi Mailakoak soilik diren zerrenda horiek.

Beraz, ez dago zerrenda bakarra Musikako Erdi Mailarako eta Goi Mailarako, Nafarroa Bai taldeak bere galderan baieztatzen duen moduan. Izan ere, lehen kasuan, Musikako Goi Mailako zerrendak osatzen dira erdi mailakoetatik abiatuz, baina horrek ez du esan nahi izangai berak egonen direnik zerrenda berean; eta, bigarren kasuan, zerrendak erabat ezberdinak eta independenteak dira.

Bestalde, gogorarazi behar da Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak oraindik ez dituela zehaztu Musikako Goi Mailari dagozkion espezialitateak Errege Dekretu bidez, eta horrek, bere garaian, aukera ematen kontrataziorako izangaien zerrendak egokitzen jotzen den moduan berriro antolatzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

ESPEZIALITATEEN ZERRENDA  
ERDI MAILA \_\_\_\_\_ GOI MAILA

Akordeoa:	Akordeoa
Konposizioko oinarriak:	Harmonia eta lagundutako melodia
	Konposizioa eta instrumentazioa
	Bat-batekotasuna
Harpa:	Harpa
Kantua:	Kantua
Klarinetea:	Klarinetea
Klabea:	Klabea
Kontrabaxua:	Kontrabaxua
Abesbatza:	Abesbatzen zuzendaritza
Orkestra:	Orkestren eta talde instrumentalaren zuzendaritza
Fagota:	Fagota
Moko-txirula:	Moko-txirula
Zeharkako txirula:	Zeharkako txirula
Musikaren historia:	Folklore musikala
	Musikologia
Gitarra:	Gitarra
Oboea:	Oboea
Organoa:	Organoa
Perkusioa:	Perkusioa
Musika-hizkuntza:	Musikaren pedagogia
Pianoa:	Pianoa
Saxofoia:	Saxofoia
Tronboia:	Tronboia
Tronpa:	Tronpa
Tronpeta:	Tronpeta
Tuba:	Tuba
Txistua:	Txistua
Biola:	Biola
Biolina:	Biolina
Biolontxelo:	Biolontxelo

<b>GOI MAILAKO ESPEZIALITATEAK</b>
------------------------------------

1. BAXU ELEKTRIKOA (JAZZA)
2. BATERIA (JAZZA)
3. KANTUA (JAZZA)
4. KONTRABAXUA (JAZZA)
5. GITARRA ELEKTRIKOA (JAZZA)
6. PIANO (JAZZA)
7. SAXOFOIA (JAZZA)
8. TRONPETA (JAZZA)
9. TRONBOIA (JAZZA)
10. TALDEA (JAZZA)
11. HARMONIA (JAZZA)
12. MUSIKARI APLIKATUTAKO TEKNOLOGIA
13. GORPUTZ TEKNIKA ETA MUGIMENDUA
14. ESZENA LIRIKOA
15. LAN-MERKATUA ETA KUDEAKETA
16. MUSIKA MODERNOA
17. GANBERA-MUSIKA

## **Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorian lan egiten duten irakasleen kontratuak hutsaltzeko prozesuak saiheste aldera.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer neurri hartuko dituen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorian lan egiten duten irakasleen kontratuak hutsaltzeko prozesuak saiheste aldera.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zer neurri hartuko dituen Hezkuntza Departamentuak saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan lan egiten duten irakasleen kontratuak ebazteko prozesuak. Hona erantzuna: (PES75)

Urtarrilaren 7ko 1/2002 Foru Dekretuaren bederatzigarren artikuluan ezartzen denez –foru dekretu horrek Nafarroako Foru Komunitateko

administrazioan eta haren erakunde autonomoetan langileak administrazio araubidean kontratatze arauak ematen ditu–, kasu guztietan probaldi bat ezarriko da, eta epe horretan bi alderdietariko edozeinek kontratua bertan behera utzi ahal du, bere kasa. Probaldiaren iraupena hiru hilabetekoa izanen da A edo B mailetako kontratuak direnean.

Hezkuntza kontseilariak irailaren 23an emandako 156/2005 Foru Aginduaren bidez, onartu ziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan arituko diren izangaien zerrendak kudeatzeko arauak.

Foru agindu horren hamaikagarren arauan ezartzen denez, kontratua gerora sorturiko arrazoiak direla-eta ebatziko da, baldin eta kontratariko langileak ez badu gaitasunik lanpostua bete zeko edo ez bada horretan moldatzen.

Kontratua ebatzi aurretik, ondoko urratsak emanen dira: zentroko zuzendaritzak txosten arrazoitu bat egingen du, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuko zuzendaritzak esku hartuko du, eta interesatuari eta Irakasleen Batzordeari entzuten zaie. Egokiak diren jarduerak egin ondoren, ikuskapen zerbitzuak txostena igorriko du, eta hori ez bada aldekoa, Giza Balia-



bideen Zerbitzuak interesatuarekin sinaturiko kontratua ebatziko du, eta interesatua kontratatua izan den zerrendatik kanpo utziko du.

Hala ere, adierazi behar da hamaikagarren arauaren azken aipamen hori, hots, izangaia zerrendatik kanpo geratuko dela baldin eta interesatuarekin sinaturiko kontratua arrazoi horregatik ebazten bada, 156/2005 Foru Aginduan sartu zela 2007ko abenduan, 228/2007 Foru Aginduaren bidez. Hau da, aldaketa hori egin aurretik, irakaslearen kontratua ebazten bazen bere gaitasun falta zela-eta, ebaluatutako izangai hori ez zen zerrendatik kanporatzen, eta beraz, aukera zegoen gero izangai bera berriro ere kontratatzeko espezialitate eta hizkuntza berean.

Musikako Goi Mailako kontratuak ebazteko prozesuei dagokionez, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egindako galderari erantzuteko, hona Giza Baliabideen Zerbitzuan dauden datuak:

– 2006/2007 ikasturtean, kontratu bakar bat ebatzi zen, ez zuelako probaldia gainditu (Carrasquilla jauna). 1/2002 Foru Dekretua betetzeko, kontratua ebatzi zizaion probaldia ez gainditzeagatik, eta kontratatua izan zen bitartekoen zerrendatik kanporatu zen. Baina interesatuak gora jotzeko errekurtsioa jarri zuen, eta errekurtsio hori baietsi zenez, berriro ere sartu zen bitartekoen zerrendan. Beraz, berriro ere kontratatu zen 2007/2008 ikasturte honetan.

– 2007/2008 ikasturte honetan, bi irakasleren gaitasuna ebaluatzeko prozedurak hasi dira (berri-

ro ere Carrasquilla jaunari eta López Lozano jaunari). Bi prozedura horiek gaur egun izapidetzen ari dira. Hala ere, ebaluazio txostenak aldekoak ez badira, eta aurretik aipaturiko kudeaketa arauen aldaketa horiek kontuan izanik, izangai horiek kontratatuak izan zireneko zerrendetatik kanporatuak izanen dira, eta gainera, ezin izanen dira zerrenda horietan berriro ere onartu hautaketa prozesu berri bat egiten denean.

Azkenik, adierazi behar da Hezkuntza Departamentua zirriborro bat egiten ari dela arautzeko irakasle lanpostuetan arituko diren izangaien zerrendarako kudeaketa arauak, eta bertan jaso da bi kasu ezberdinu behar direla langilearen gaitasun faltari dagokionez, orain arte tratamendu bakarra eman baitzaie. Ildo horretatik, kontratua ebazten bada langilea ez delako lanpostuan moldatzen, izangaia kontratatua izan zeneko zerrendatik kanpo geratuko da. Aldiz, kontratua ebazten bada ez duelako irakasteko gaitasunik, izangaia dagoen zerrenda guztietatik kanporatuko da. Halaber, aipaturiko zirriborro horretan jasotzen da izangaia deitua izateko zerrenda horretatik kanporatzeko kausa izanen dela kontratua ebaztea probaldiak irauten duen bitartean. Testu hori negoziatzen ari da unibertsitatez kanpoko langile irakasleen mahai sektorialean dauden sindikatuekin.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas  
López de Goicoechea

## **Galdera, jakiteko noiz izango duen Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko klaustroak beharrezkoa den egonkortasuna, irakasleen plantillari dagokionez.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko noiz izango duen Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko klaustroak beharrezkoa den egonkortasuna, irakasleen plantillari dagokionez.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Galdera 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera

egin du jakiteko noiz izanen duen Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko klaustroak beharrezkoa den egonkortasuna, irakasleen plantillari dagokionez. Hona erantzuna:

Lehenik eta behin, gogorarazi behar da Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak oraindik ez duela zehaztu errege dekretu bidez zein izanen diren Musikako Goi Mailako espezialitateak, beraz, espezialitate horiei dagokienez, itxaron beharko da aipaturiko arau hori onartzen den arte, zehaztu ahal izateko zein diren Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakasleen beharrak.

Hala ere, Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoaren berezko espezialitateei dagokienez, Hezkuntza Departamentuak, 2007ko azaroaren 28an egin zen Langile Irakasleen Mahai Sektorialean, adierazi zien sindikatuei legegintzaldi honetan oposizioak deituko direla irakasleen

kidego horretarako. Helburua da bitartekotasuna murriztea, gainerako irakasleen kidegoetan aplikatzen den irizpide berarekin bat.

Hala dago jasota 2007ko azaroaren 28an egin zen mahai sektorialaren aktan: Sindikatuek Kontserbatorioko lan-eskaintza publikoari buruz egin zuten eskaria ikusirik, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak adierazi du Hezkuntza Departamentuak konpromisoa hartu duela, legegintzaldi honetan bertan, Musika Kontserbatorioan dagoen bitartekotasun maila berdintzeko gainerako irakaskuntzetan dagoenarekin, eta erabaki da ahalik eta plaza gehien eskaintzea Kontserbatorioan, legegintzaldi honetan eginen den deialdi bakarraren bidez.

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea.**

**Gainditu dutenen zerrenda**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik epaimahai kalifikatzaileak igorritako gaindituen zerrenda, eta deialdiko 9.2 oinarriarekin bat (Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts betetzeko lekualdatze-lehiaketaren deialdia –lanpostu horie-

tako batek betekizun gisa euskara jakitea zuen–; 2008ko urtarrilaren 23ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2008ko urtarrilaren 3ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen), honakoa ERABAKI DA:

1. Gaindituen zerrenda bakar hau onestea, euskara titulurik ez dutenena hain zuzen:

Izangaiaren izena	Baremoa, guztira	Probak, guztira	Txosten psikoteknikoa	PUNTUAK, GUZTIRA
Borda Olagüe, Carmen	30,470	13,5	8,08	52,05
Rodrigo Jaso, M. <sup>a</sup> Jesús	26,519	15,75	7,85	50,119
Jaurrieta Elcano, Teodoro	26,065	14	7,62	47,685
Círez Rubio, Jon Karlos	24,433	14	7,85	46,283
Larrasoaña Zunzarren, Raquel	21,986	15	9,00	45,986
Llave Nuin, Olga de la	27,200	10	7,62	44,820
Sesma Vallés, Amaya	18,058	16,5	7,65	42,408
Mangado Cortés, M. <sup>a</sup> José	20,599	13,6	8,08	42,279

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2008ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	